

Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu; izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta jasangarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



Famili kontziliazioa: Haurrentzako tailerrak ekainean

Ekaineko lehenengo hiru asteetan, eskolak goizez baino ez daudenez, **gurasoei euren familia eta lan bizitza bateragarri egiten laguntzen ahalegindu gara.** Horretarako, haurrentzako tailerren laugarren edizioa antolatu dugu ULMAN. 4 urtetik gorako haurrei zuzendutako tailerrak izan dira, 14:00etatik 18:00etara bitarte. Hartara, gurasoak lasai joan daitezke lanera, txikiak gozatzen eta arretapean egongo direla jakinda.

7 begirale eta ULMAko pertsonen senitartekoak arduratu dira tailerrak dinamizatzeko. Hamaika jarduera, esperimendu, eskulan, musika eta jolas

egin dituzte, eta ezin hobeto pasa dute.

Aurten, Oñatiko Larraña harrera etxean bizi diren afrikar errefuxiatuak izan ditugu gonbidatu bereziak. Ostegunetan joan dira, 8 urtetik gorako haurrei koloretako harien eskumuturrekoak egiten irakastera.

Azken egunean, parte hartzaile eta senide guztiak gonbidatu genituen 2019ko tailerren amaiera ekitaldira. Haurrek antzerkia egin zuten, eta ondoren, 80 orduko tailerren laburpen bideo bat ikusi genuen. Amaitzeko, aurtengo oroigarri, errefuxiatu gonbidatuek eurek eskuz egindako oparitxo bat ekarri zuten, haur guztien artean banatzeko: harizko



4.
urtea

115
hur



7
begirale

azken egunean ataratako argazkia >>

eskumuturreko bat. Tailerretan erakutsitako modeloa baino askoz ere konplexuagoa, baina.

Betaurrekoen bilketa solidarioa, Senegalerako

Uztailaren 15era bitarte, betaurrekoak bilduko ditugu, gero Senegalera eramateko: betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak. Bilketa honen bidez, Bergarako Ndank Ndank elkarteari lagundu nahi diogu, izan ere, ULMAN lan egiten duten hainbat pertsona dira elkarte horretako kideak.

Ndank Ndank irabazi-asmorik gabeko elkarte da, kulturartekotasuna eta Senegalgo garapena bultzatzeko programak gauzatzen dituena. Elkarte horretako boluntario batzuk Senegalera joango dira abuztuaren 4tik 18ra, bildutako betaurreko guztiak pertsonalki eramateko. Gainera, Elgoibarko Uzuri optikak dohaintzan emandako ikusmena graduatzeko makina bat ere eramango dute.



zure kooperatibaren harreran utzi ditzakezu

Emateko moduko betaurrekoak badituzu, beste pertsona batzuei hobeto ikusten lagunduko diezu.

#keinujasangarria

Mugikortasun elektrikoa ULMAN



KOTXE
ELEKTRIKO
HAU
PROBATU

Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundearen laguntzari esker, mugikortasun elektrikoari buruzko hitzaldi teoriko bat entzuteko eta, ondoren, Hyundai Kona elektrikoa probatzeko aukera izango dugu. Irailaren 26an, 11:00etatik 13:00etara ULMA Taldeak Oñatin dituen instalaziotan.

Hitzaldira doazen pertsonek bi egunetan autoa erabiltzeko aukera izango dute, etxetik lanerako joan-etorrietarako.

Interesgarria iruditzen zaizu? Jarri gurekin harremanetan: ulmafundazioa@ulma.com.

*Beharrezkoa izanez gero, pertsona bakoitzak kudeatuko du parte hartzeko baimena, bere kooperatiban.

26
bizikleta elektrikoak

Dagoeneko amaitu da lanera joateko helburuarekin Orbea bizikleta elektrikoak erosteko laguntzen kanpaina. Guztira, 26 pertsonak eman dute izena programan, eta eskura dute bizikleta elektriko berria. Mila esker, lanerako joan-etorrietan jasangarriagoak izateagatik.

